

Immigrazioa eta zurrumurruak: zenbakia bai, baina...



GORKA MORENO MÁRQUEZ
IKUSPEGI-EUSKAL
IMMIGRAZIOAREN
BEHATOKIKO KIDEA

Jende askok pentsatzen du immigrazioaren inguruko zurrumurru eta estereotipoei aurre egiteko tresna eraginkorra eta bakarra datu estatistikoak direla. Argi dago, fenomeno honen errealitatea era argi eta zehatzean ezagutu behar dugu ezinbestean; dena den, zenbakien mugak eta ahuleziak mahai gainean jarri behar ditugu.

Sarritan ikusi ohi dugu immigrazioaren arloan, errealitatea eta pertzepzioa ez datoz bat. Urtetik urtera, esaterako, immigrazio kopuruaren pertzepzioa errealitatearena baino altuagoa da eta gaur egun zifra hau %10ekoa bada, pertzepzioa %17koa da. Baina 2007an, etorkinen kopurua %5,7koa zenean, pertzepzioa %17,9koa zen, gaur baino altuagoa etorkinen kopurua gaurkoaren erdia zenean. Zentzu honetan, argi izan behar dugu errealitate estatistikoaz gain komunikabideen tratamendua edota diskurtso politikoek eragina dutela pertzepzio hauen eraikuntzan.

Arazoa ez da soilik jasotzen den informazioa egokia edo erratua izatea, hala izango balitz datu estatistiko zorrotzak ematearekin nahikoa izango litzateke zurrumurruei aurre egiteko; baina era berean bihotzera eta erraietara ailegatzaren diren istorioak landu behar ditugu, elkarbizitza arriskuan jartzen duten aurreiritziei aurka egin nahi badiegu behintzat. ●

emozionala. Burua eta bihotza daudela aurreiritzien baitan alegia.

Horrela izanik, aurreiritziei kontra egin nahi badiegu, bi aldeak landu behar dira, arrazionala eta emozionala; lehenengoarekin ez da nahikoa izango. Lehenik eta behin, emozionaltasunaren arlo horretan, garrantzitsua da nolabaiteko enpatia erabiltzea gerturapenean. Adibidez, ezer gutxi lortuko dugu jendeari arrazista deitzen badiogu ezagutu orduko. Bigarrenik, agian merezi du diskurtso bertutetsu eta perfektuak zokoratzea eta errealitatean gertatzen diren esperientzien bidez immigrazioaren fenomenoaren normaltasunaren laudorioa egiteak. Honen bidez, datu hotzak eta urrutiko adibideak zokoratuz eta gertutasuna eta egunerokotasunari garrantzia emanez. Era berean, espazioak garrantzitsuak dira, hitzaldiak interesgarriak izan daitezke, baina aisialdietan edota festetan espazio egokiak bilatzea ere estrategia oso eraginkorra izan daiteke.

Laburbilduz, datuak bai, emozionaltasuna ere bai. Informazio zorrotza eman behar dugu immigrazioaren inguruko zurrumurruei aurre egiteko; baina era berean bihotzera eta erraietara ailegatzaren diren istorioak landu behar ditugu, elkarbizitza arriskuan jartzen duten aurreiritziei aurka egin nahi badiegu behintzat. ●

Laino egunak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Urtea hasi zaigu laino pean. Gristasun zilarrak, aldi berean, lurreko bizidunak gerizatzen ditu eta arazoak begi bistatik kentzen, gure egunen anbigutasunaren ikur bilakatuz. Alta, noiztenka, eguzkiak zama uher hori zulatzen du, bihotzetan emozio sinets ezina piztu bitartean. Urtats gaua gurbila izan da, halaber bitez ondoko hamabi hilabeteak, zotal-egunak barne.

Aturri hegian nago pentsatzen. San Izpiritutik ez dut udaletxea ikusten. Bost axola. Uraren azaletik laino piltzarrak altxatzen dira amultsuki eta entzungailuak belarrian, Alos Quartet eta MICE hautema-

ten ditut aldizka, argitasun kontrastatuak zartaraziz arrats apala nola erortzen den Baiona gainera miretsiz. Ikusgarri ederragorik ez da. Maite Larburu, Mursego, Jeremi Garat eta Ibon RG gehituz, hor daukat eskura, 2020ko soinu banda distiratsua.

Aurten ere musika on-ona beharko dugulako, laino, hodei, enbata, galerna eta haizete iragarriak jasateko; *Macronia*-ko karrikak mukuru daudenean edo etxean bakarrik gaudenean, ETB Kantxa kirol saioan, Mikel Urrutikoetxearen eta Aimar Olaizolaren binakako txapelketako balentriak pantailan jarraitzeko.

Bake eta zorion zuri, irakurle... ●